



ESKOLAKO UDAL FORORAKO GIDOIA

DIMA 2017.05.15 9:30

- 9:30 Parte-hartzaileen harrera
- 9:35 Parte-hartzaile guztien aurkezpena eta jardunaldiaren dinamikaren aurkezpena (ORTZADAR)
- 9:40 Udal Instituzioaren partetik ongi etorria (ALKATESA)
- 9:45 Aurreko ikasturtean egindako proposamenak (ARDURADUN TEKNIKOA EDOTA ALKATESA)
- 9:55 Ikastetxeak egindako lanaren aurkezpena eta adostutako proposamen eta konpromisoen ekarpena (IKASTETXEA)
- 10:05 Ikastetxeak aurkeztutako proposamenen erantzuna edo hauek kudeatzeko moduaren aurkezpena (ALKATESA)
- 10:15 Alkatesaren agurra, instituzioaren konpromisoa eta Eskolako Agenda 21eko arduradunaren deialdia hurrengo ikasturterako. (ALKATESA)



UDALAREN ONGIETORRIA

Egun on, ongi etorri parte hartzaile guztiei, ikasle, irakasle, etab-ei.

Urterik urte biltzen gara udaletxean, ikasturtean zehar egin duzuen lanari begirada bat emateko. Nahiz eta urtean zehar, elkar ikusteko aukera askorik ez dugun, gertutik jarraitzen dugu egiten duzuen lana.

Lehenengo urtean, zure ikastetxean egindako lana erakutsi zenigutenetik, gogoz etortzen gara urtero saio honetara, jasangarritasunaren alde egiten duzuen lana ezagutu eta gure ingurua eta udalerrria hobetzeko hartzen dituzuen konpromisoak zeintzuk diren jakiteko.

Ikusi ahal izan dugunez, hartzen dituzuen konpromisoak pixkanaka aurrera eramanez, udalerrriaren egoera hobetuz doa.

Udalak ere, Mankomunitatearekin batera, udal politikak, inguruaren kudeaketa jasangarri baterantz zuzentzeko apustua egin du, korporazioaren lana biltzen duten esparru guztietan, garapen jasangarriaren alde, elkarlanean eta modu adostuan lan eginez. Honengatik, zuen proposamenak biziki lagungarriak dira, Dima jasangarriago bat lortzeko.

Bene-benetan eskertu nahi dizuegu egiten duzuen lana eta zuei denbora gehiago kendu gabe, hitza emango dizuet, zuen lana eta honen ondorioak bildu ahal izateko.



AURREKO IKASTURTEKO PROPOSAMENEN BIRPASATZEA

lazko Eskolako Udal Foroan eta azken urtean martxan jarri diren proposamenak birpasatuko ditugu.

1. Ikastetxearekin ekintza desberdinak garatzeko, koordinatzeko prest egotea
2. Basoak (botatzen) ustiatzen direnean, sarritan bideak deseginda eta lohi gelditzen dira. Beraz, Udalari eskatzen diogu hori ez gertatzeko ardura hartzea
3. Bazterrak garbitzeko, insektizida edo pestizidarik ez erabiltzea, erle eta beste animalia askorengan kalte handia egiten duelako.
4. Baso landaketak egiten direnean zuhaitz autoktonoak ipintzea eta identifikatzea
5. Eskolako patioan zaborra sailkatzeko ontzi ezberdinak ipintzea
6. Espezie exotiko inbaditzaileen kontra jardutea, panpako lezka esaterako
7. Ibaien aldeko kontzientziazio kanpainak sustatzea
8. Hondatuta dauden iturriak konpontzea eta garbi mantentzea
9. Neguan gatza botatzerakoan kontu izatea; honek landareak eta belarra erretzen duelako
10. Arriskuan diren espezieak defendatzea eta zaintzea. Bertako kangrejoa, saguzarrak, bisoia...
11. Txirrinduak aparkatzeko gailua eskolaren aurrean ipintzea



ALKATESAREN AGURRA

Saioa amaitu baino lehen, egiten duzuen lana eta esfortzua eskertu nahi dizkizuegu eta proiektu honetan lan egiten jarraitzera animatzen zaituztegu. Udalekoek zuen lana aintzat hartzen dugu eta zuek ematen diguzuen informazioa guk garatzen dugun lanaren baliabidea da. Beraz, eskerrik asko eta holan jarraitu!!!